

AXULAR-en ZUZENBIDEA: *JUSTIZIA MIN DA, ETA GARRATZ ...*

Andres URRUTIA

1. ATARIKOA

Ezaguna da euskal letretan Axular-en itzala. Izan ere, euskal literaturan barrena ikertzaile ibili direnentzat ezinbesteko mugarrria da idazle nafarra. Pedro Agirre izenez eta *Axular* izenordez¹, *Gero* (1643) liburuaren egileak noranahi zabaldu ditu bere sona eta ospea, gaztelaniaz ere ezagutarazi zuela Aita Villasante zenak. Berrikitan argitaratu da katalanezko testua², eta arian-arian aipatua eta aztertua da lan hori, filologia nahiz literaturaren ikuspegitik.

Badira, alabaina, osterantzeko aukerak *Gero* horretan. Gaiari dagokionez behinik behin, begien bistakoak dira teologiak dituen pisua eta esanahia, Axular zenarentzat norabide eta zeregin nagusi zirenak. Horixe aztertu zuen, aztertu ere, I. Balenziagak, Axular-en teologia azaldu zuenean³.

¹ VILLASANTE, Aita L. *Axular. Mendea. Gizona. Liburua*. Arantzazu/Oñati: JAKIN liburu sorta. Historia saila, 7. zk., 1972. Orobat, ETCHEPARE, J. *Axular (1556-1644)*. Herria idazkiak, 1956.

² AXULAR. *Després*. Bartzelona: Clàssics del Cristianisme, 86. zk., Facultat de Teologia de Catalunya. Fundació Enciclopedia Catalana, 2001. Jean Haritschelhar euskaltzainburua izan zen katalanezko itzulpen horren aurkezlea. Hona hemen, haren hitzetan, *Gero*aren nondik norakoak: *El gran mèrit del llibre és el de ser una obra original que, amb els seus nombrosos exemples o anècdotes trets de la vida corrent, parla amb entusiasme al lector, l'immergeix en l'àmbit quotidià basc tot comunicant-li la moral clàssica de l'Església catòlica del segle XVII; un model, a més, de prosa, que fa del seu autor un mestre de la literatura basca*.

³ BALENZIAGA, J. M. *Axularren teologia ("GERO"ri zenbait oharpen)*. Bilbo: Ediciones Mensajero, 1990.

Horrek ez du agortzen, ezta hurrik eman ere, Geroren esparrua. Haatik, norberaren ogibidetik abiatu eta zuzenbidea jarri da abiapuntuan, zer non bilatu nahian Axular-en liburuan. Hori egiteak, gainera, ez gaitu okerreko bideetara eraman behar, zuzenbideko liburuaz ez baita nafarrarena. Horren zuzenbideko edukiak, alabaina, argi erakuts diezazkiguke XVII. mendeko euskal idazle ikasi batek zuzenbidearen inguruan zeuzkan jakituria eta erabilera. Hori dugu jakin-minekoa, eta horixe da, berez, ohargarri izan dakigukeena. Horren bidez ere, bestelakoa zehaztea, alegia, euskara juridikoaren arrastoak bilatzea liburuaren lerrokatetan. Horren erakusle, liburuan zehar ageriko diren erakunde juridikoek ildo fidagarri eta bilbatua emango digute, gurea egoki zertzeko.

2. AXULAR: ZUZENBIDEA ETA TEOLOGIA MORALA

Geroren aipamen juridikoak ulertzeko saihestezina da Axular-en jatorria eta formazio-prozesua elkar erkatu eta ondorioztatzea. Horrek dakar, besterik gabe, zuzenbidearekin izan zuen ukitua plazaratu aitzin, haren ezaupide juridikoak aipatzea, eta, ahal dela ere, haren iturburuak eta erro juridikoak zehaztea.

Puntuz puntu jarrita, hauek izango lirarteke eztabaidatuena:

A) Axular teologo genuen, eta, jakina, garai hartako askoren antzera, teologia-ikasketak egin zituen. Hortaz, haren prestakuntza teologikoa zen, eta, teologia sakon ezagutu zuela baieztatu badaiteke ere⁴, pentsatzekoa da

⁴ MICHELENA MTZ. DE ILLARDUYA, I.: "Sobre la estancia de Axular en la Universidad de Salamanca". *Fontes Linguae Vasconum studia et documenta*. Número extraordinario (Homenaje a Axular). Iruñea (1974), 16. zk., urtarrila-apirila, 85. or.: *La dificultad estaba en que, aunque hay un fichero completo de todos los licenciados y doctores o maestros por Salamanca, no lo hay de bachilleres, y la mayor parte de los que allí estudiaron no pasó de ese grado. Una vez comprobado que Axular no figuraba entre los primeros, busqué, gracias a la inestimable ayuda de Don Florencio Marcos, su nombre en las listas anuales de alumnos matriculados y acabé por encontrarlo. Primero, entre los alumnos del curso 1592-93 y luego, con fecha 29 de noviembre de 1594, entre los del curso 1594-95. En esta última encabeza la lista como puede verse en el grabado: "Pedro de Ajular, natural de Urdax diócesis de Pamplona. 4.º año". No aparecieron, por haberse perdido o traspapelado, las listas correspondientes al curso 1593-94.* MITXELENA MZ DE ILARDUYA, I. "Axularren titulua". *Fontes Linguae Vasconum*, 1977, 25. zk., 57. or.: *Orain, aurkitu berria dudan dokumentuari esker, esan dezakegu Axularrek Teologiako istudioak hasi ez ezik, bukatu ere egin zituela; 1595ean batxiller egin zirenen artean gure idazlearen izena agertzen baita, eta euskal deiturekin maiz, lehen eta orain, gertatu ohi den bezala, gaizki idatzia. Honela dio "Acta de bachilleramiento" honek: Pº dealuxar.*

zuzenbide kanonikoa eta zibilaren zerbait ere ezagutu zuela. Arean ere, hainbatetan nahasi eta gurutzatzen ziren bateko eta besteko hariak, teologia eta zuzenbidearen esparruetan. Beste horrenbeste, zuzenbidearen barruan, ohiko zela ikasleen artean eta gizartearen barruan baieztatzea juristak bi zuzenbideotan, alegia, *iuris utriusque* direlakoetan, jakintsuak zirela⁵. Ez dago, bistan denez, inongo argumenturik Axular juristen artean kokatzeko. Ezta ere, maila berean, haren ezaupide juridikoak baztertzeko, Geroren baitan eskaintzen direnak aintzat hartuz gero.

Begien bistakoa da, hortaz, Axular-en aipamen juridikoak, zuzenekoak baino, zeharkakoak zirela⁶. Teologia baliatu zuen hark, zabal eta oparo, bere liburu sonatuan. Hala ere, teologia-ikasketa horiek, aldi berean, zuzenbidearekikoa ekarri ahal zioten, batez ere, zuzenbide kanonikoaren ukitua. Gai horretan Salamancako Fakultatea ospe handikoa zen, eta, areago, zuzenbide zibila ere landua zen bertan. Hortaz, Axular-entzat ezagun izan zitezkeen, orduko, zuzenbide kanonikoa, eta, agian, zuzenbide zibila ere.

B) Orduko zuzenbide kanonikoak (*Grazianoaren Dekretua* eta *Dekretalak*) eta zibilak (*Corpus Iuris Civilis*) zuzenbide erkidea, *ius commune* delakoa, osatzen zuten, hain zuzen ere, Salamancan entzute zabala zeukana eta teologiarekin batera erakusten zena. Hartara, lege eta kanon fakultateak

⁵ ALVARADO, J. (arg.). *Historia de la literatura jurídica en la España del Antiguo Régimen (volumen I)*. Madrid: Marcial Pons, 2000, 128 eta 129. orr.: *Si el nombre de Salamanca suena en el mundo se debe a su Universidad, y dentro de ella a su Escuela de maestros del Siglo de Oro del siglo XVI y comienzos del siglo XVII, que eran ambidextros en el manejo de los saberes teológicos a la vez que de los jurídicos... Teólogos y canonistas tenían en común un factor que aunaba sus esfuerzos, ya que unos y otros utilizaron todo su bagaje de fuentes y de conocimientos teológicos y jurídicos, así como su reflexión jurídico-teológica, para dar respuesta a los grandes problemas de su tiempo. Esto les obligaba a ser interdisciplinarios y ambidextros para manejar a la vez conocimientos filosófico-teológicos y jurídicos tanto canónicos como civilísticos, aunque el uso de los autores clásicos de la antigüedad grecolatina era frecuentemente de segunda mano, como lo muestra el hecho de que muchos textos patrísticos eran tomados del Decreto de Graciano y no de las correspondientes obras de los Padres de la Iglesia... Lo más novedoso de estos teólogos y juristas es que aciertan a ensamblar en unos esquemas, en buena medida antiguos, los problemas legales más candentes de los hombres y reinos del siglo XVI, al revés de los escolásticos medievales, que generalmente se mantienen en el plano de la atemporalidad.*

⁶ LACOMBE, G. "Varia sur Axular et son livre". *Gure Herria* XXVIII-6 (1956), 21. or.: *Jusqu' à la fin du XIX^e siècle, on croyait que le chef-d'œuvre d'Axular avait été pensé directement en basque. On ne s'était pas demandé comment un ecclésiastique rural, travaillant loin de toute grande bibliothèque, pouvait citer tour-à-tour et abondamment Aristote, Sénèque, Plutarque, saint Augustin, saint Jean-Chrysostome, saint Ambroise, saint Thomas, etc., etc...*

bereiziak izanik ere, ikasleak bi zuzenbideetan ziren adituak eta jardunekoak.⁷ Elkarrekin aberasgarri gertatu ziren bi jakintzagaiok Salamancan bertan, eta, erraz atzeman daitekeenez, Axular-engan ere euren eragina izan zezaketen⁸.

Zuzenbideari dagokionez, ezin uka Axular-ek erakusten duen zuzenbide-ezaguera, testuak sarri-sarri papereratzen baititu bere kontu-arrazoia garbitzeko. Aipamenok, nolana ere, egoki eta artez antolatzen ditu, jarraian azalduko denez.

C) Bi-bion arteko estekadura, alegia, teologiaren eta zuzenbidearen artekoa, teologia moraletik dator, inoiz aipatu denez⁹. Teologia moral horrek

⁷ SALAMANCA. REVISTA DE ESTUDIOS (De Dios De Dios, S., Domínguez-Berrueta de Juan, M. eta Infante Miguel-Motta, J., koord.). *Salamanca y los juristas (monográfico)*. Salamanca: Ediciones de la Diputación de Salamanca (47. zk.), 2001.

⁸ SALABERRI MUÑOZA, P. *Axularren prosa erretorikaren argitan*. Bilbo: Doktorego Tesiak Saila. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, 1997.

⁹ WERUAGA PRIETO, A. *Libros y lectura en Salamanca (Del Barroco a la Ilustración: 1650 – 1725)*. Salamanca: Junta de Castilla y León. Consejería de Cultura y Turismo, 1993, 62 eta 63. orr.: *Pero el siglo del Barroco, o la época de la Contrarreforma, va a ser el gran momento de la moral, más que el de la gracia divina o el de María. Aquella se erige en una rama de la Teología distinta de la dogmática... Por eso, al elevado número de obras de Teología moral le corresponderá una potenciación de la confesión y de los manuales de confesores. Éstos serán con los misales las obras más utilizadas por los eclesiásticos. Empezaron siendo una aplicación práctica de las enseñanzas de la Teología moral destinados a formar a los nuevos clérigos en sus tareas pastorales... Así, las posibilidades de hacer el bien o el mal eran infinitas, de ahí la necesidad de regular la praxis de la fe por medio de una moral casuística. Ello se parece más al Derecho que a otra cosa, y aunque en su inicio produjera obras históricamente tan importantes como la Relectio de Indis de Vitoria, el De iustitia et iure de Domingo de Soto o el De contractibus de Mercado, luego evolucionó hacia un legalismo absurdo, pero que calmaba eficazmente a la mayoría de las conciencias. Orobart, CRUZ CRUZ, J. *La ley natural como fundamento moral y jurídico en Domingo de Soto*. Barañain: EUNSA. Colección de Pensamiento Medieval y Renacentista, 91. zk., 2007, 53. or.: *Efectivamente, todo indica que para aquellos hombres la figura del teólogo, como la del filósofo para los griegos, o el jurista para los romanos representaba un papel protagónico en la vida de la sociedad. Aquellos teólogos del Siglo de Oro consideraban la teología a la manera que Cicerón la ciencia del Derecho: como conocimiento de las cosas divinas y humanas, y ciencia de lo justo y de lo injusto. La misión y objeto de la teología son tan amplios —dijo el dominico Francisco de Vitoria (1480-1546) al comenzar su Relección sobre la potestad civil— que “no hay asunto, investigación ni materia que parezcan ajenos a su profesión”. Bien se ha dicho que los teólogos, acostumbrados a contemplar los problemas más desde lo alto, fueron grandes juristas, precisamente por ser teólogos, porque sin desconocer ni negar la diferenciación de las ciencias, buscaron y descubrieron la urdimbre que las pone al servicio de una misma realidad, prestándose mutua ayuda para ampliar los horizontes del conocimiento, pero no hay que pensar que éste fue un resultado no querido. Baste recordar que los teólogos en general y sobre todo los de la talla de un Domingo de Soto eran de por sí maestros en el problema de la especificación de las ciencias.**

ekarri zuen, besteak beste, teologiak berak zuzenbidearen tankera hartzea, kristauaren eginbeharrak zehatz-mehatz eta kasuan-kasuan arautuz, manu eta agindu askoren bitartez. Neurri handi batean ere, teologia moralak da Axular-ek nabarmentzen duena, geroke bizitza prestatzeko mundu honetan zer egin behar den azalduz.

Hartara, Lafitte zenak¹⁰ berehala igarri zuen zuzenbide zibilaren izatea Axular-en testuan, hitz biribilak jaurtiz. Harentzat, alabaina, ezinezkoa zen urdazubitarrarentzat halako aipamenak egitea, aldezturiko biblioteka aberatsik gabe. Gakoa, halere, bestera argitzen da, aipamenak egiteko eskuliburuak beren beregi tartekatzen direnean. Maiz-sarri erabiliko ziren haiek orduko hartan, eta gero ere bai¹¹.

Iduri luke, haatik, Axular-en zuzenbide-jakituria aipamentegi batena baino zabalagoa dela, eta, bide batez, horrek barruratsen dituela, besteak beste, hainbat kontzepturen xehetasunak, hala nola, geroago aipatuko denez, salmentaren eta bahiaren arteko berezitasunak, testamentuko xedapen askoren bereizketak eta abar...

D) Horiek horrela, bada Axular-engan garaiko zuzenbidearen isla, hau da, zuzenbide jasoa, zuzenbide erkidea, *ius commune* delakoa. Quid, ordea, Axular-ek jaiotzaz eta bizitaz ezagut zezakeen nafar zuzenbidearena? Gai korapilatsua, inondik ere, oraingo hau. Axular-ek, ziur asko, bitasun hori nabarmendu zuen, bateko unibertsitatean ikasitako zuzenbide erkidea, eta,

¹⁰ LAFITTE, P. "Les citations d'Axular". *Gure Herria* XXVIII-6 (1956), 39. or.: *Enfin Axular a puisé dans les "Gloses", le dictionnaire de Charles Estienne, les Codes de droit civil, et dans le trésor oral des proverbes populaires. On s'est souvent demandé comment un curé de Sare pouvait avoir à sa disposition une telle quantité de texts, à une époque où les livres étaient rares et coûteux. En réalité point n'était besoin d'une vaste bibliothèque pour avoir à sa portée une documentation impressionnante. Les compilations abondaient sous des titres variés: Catenae, Exempla, Dicta fataque memorabilia, Antiquae lectiones, etc. Ces recueils de Petrus Crinitus, Alexander ab Alexandro, Leonicus, Caelius Rhodiginus, Fulgose, Ravisius Textor, Louis de Grenade, et autres collecteurs de citations antiques étaient for à la mode aux XVI^e et XVII^e siècles... Axular s'inspire d'ailleurs très librement de ses sources et son œuvre reste personnelle par la composition, le mouvement et le style.*

¹¹ Horren adibide, esaterako, CLARISS, VIRO. *Sententiæ selectæ pertinentes ad materiam praxios rerum criminalium, et aliarum partium. Iuris Scientiarumque* (1601. urteko argitalpena). The Lawbook Exchange, LTD. Clark, New Jersey, 2005.

besteko, lurraldeko zuzenbidea. Azken hau, Salamancan behinik behin, Gaztelakoa zen¹².

Uste izatekoa da, beraz, Axular-ek nafar zuzenbidea ere ezagutzea, zuzenbide hori (Aragoikoarekin batera) *ius commune* zelakoari oldartu baizitzaion irmoki. *Mos italicus* molde horren barruan zebilen orduan zuzenbide erkidea. Lalinde Abadiak¹³ jorratu du arlo hau zabal eta artez, eta harenak izan daitezke guretzat giltzarriak.

¹² ALONSO ROMERO, M. P. “*Teoría y praxis en la enseñanza del derecho: tratados y prácticas procesales en la Universidad de Salamanca a mediados del siglo XVI*”. *AHDE* 61 (1991), 471.etik 473.erako orr.: ... *sabemos que los métodos al uso para la enseñanza de las disciplinas jurídicas y canónicas giraban en torno a la exposición y comentario de las diversas partes del Corpus Iuris Civilis y el Corpus Iuris Canonici... Ya Pelorson hace años incidía sobre este hecho: cómo, por la profunda influencia del pensamiento teológico y sus formas de razonamiento, que llevaban a los juristas de las Universidades a tratar de demostrar la ausencia de auténticas antinomias entre la Teología y el Derecho, la enseñanza jurídica en una y otra rama introducía frecuentes comparaciones no sólo entre el Derecho Romano y el Canónico, sino entre éstos y el Derecho real... Luego el Derecho real se conocía y alegaba en la Universidad englobado, como ius singulare, dentro de lo que, con todo, constituía indiscutiblemente el centro de gravedad de las enseñanzas: el ius commune, el Derecho romano-canónico y la obra de sus comentaristas. El objetivo docente que se perseguía en las Universidades dominadas por los métodos del mos italicus —la de Salamanca entre ellas— era enseñar a los oyentes el arte de servirse del Derecho para la resolución de los casos concretos, y hacía ese objetivo se orientaban las lecciones ordinarias.*

¹³ LALINDE ABADÍA, J. “La ubicación del Dreyto de Navarra en el área española del Directum”. *Príncipe de Viana* Anejo 14 (1992), Segundo Congreso General de Historia de Navarra/Nafarroako Kondairaren Lehen Batzarre Orokorra (1990. urteko irailak 24-28). 2. Conferencias y comunicaciones sobre Prehistoria, Historia Antigua e Historia Medieval, 302. or.: *Entre la foralidad navarra y la foralidad territorial castellana existen notables relaciones, que se manifiestan en la regulación de la capacidad de las personas, la asistencia de parientes en la concertación del matrimonio, el matrimonio por raptó, la aportación marital y la comunidad económico-matrimonial, entre otros aspectos. Aún más estrecha es la relación entre las foralidades navarra y aragonesa, que no pasó desapercibida a los historiadores del Derecho más interesados por el Reino de Navarra, como fueron Amalio Marichalar y Cayetano Manrique. Yo he insistido en diversos lugares, incluyendo la manualística. No podía suceder de otra manera, puesto que desde 1076 a 1134 la historia de Navarra ha corrido unida a la de Aragón, cuando esos han sido años cruciales en la génesis de las foralidades españolas. Halaber, artíkulu bereko 312 eta 313. orr.: Sin embargo, dentro del “Directum” la actitud de sus variedades ha sido distinta frente al “ius commune” y el “dreyto” navarro y aragonés ha sido de notable resistencia. Hinojosa ya observó esa condición resistente y afirmó que podría hablarse de romanización, pero no, de recepción... El que haya estudiosos navarros en Bolonia o París, identificables por su condición de “sabios en Derecho”, “advogados del seynnor”, y “licenciados en decretos” no anula la realidad de una ausencia de universidad propia, salvo tímidos intentos de creación en Estella o en Olite, así como la falta de literatura propia y de disposiciones legislativas con referencias concretas claras al Derecho común... Congruentemente con lo sucedido en el orden normativo, el*

Ondorioak, jakina, aurrekoaren laburbiltzetik datoz, Axular-en esanahi juridikoak xehe-xehe jorratu aurretik. Axular-en erreferentzia juridikoak maila jasokoak dira, eta kasu egiten diote unibertsitatean irakasten zen zuzenbide erkideari. Molde berean, aipamen horiek baieztatzen dute, Axular-en aldetik, mundu juridikoaren berri zehatza izatea, edo, behintzat, teologia moraletik zuzenbidera doan esparruarena.

3. ZUZENBIDEA GERON: ARLOZ ARLOKO ZEHAZTAPENA¹⁴

Lauzprobost arlo nagusi ditu Axular-ek bere liburuan, zuzenbideari, justiziari, eta, oro har, legeari dagokienez. Esan gabe doa hiztegi-arloan hamaikaxo aldiz erabiltzen dituela Axular-ek legearekin estekaturik dauden hitzak. Batzuk barne-barnetik lotuta daude; besteak, aldiz, hizkera arruntean ere badira nonahiko eta noiznahiko, zenbait kasutan esangura bereziekin agerikoak badira ere¹⁵.

Gero liburua xede jakin baten zerbitzuko da. Goiburutik bertatik datorkio izana, alegia, kristau-arimentzat kaltegarriak nondik datozen beren beregi azaltzea, mundu honetan bekatuaren luzamendutan ibiltzeak betiko salbamendurako dakarren kalte nabarmena.

“dreyto” navarro se muestra resistente frente al “ius commune”. En orden a la conceptualización de la persona, el “dreyto” puede estar en la línea de algún fuero de francos y del ordenamiento territorial castellano, aparte de coincidir con Aragón hasta un cierto momento, que es en el que éste último Reino manifiesta, precisamente, cierto acercamiento al derecho romano. Zernahi gisaz, “dreyto” hori euskarazko dretxo edo deretxo-tik hurbil dagoela ezin baztertu. Axular-ek, alabaina, zuzen darabil gehienbat zuzenbide/eskubide horren inguruan. Ikus 15. oin-oharra.

Ikus, bide beretik, LACARRA, J. M^a.: “Miscelánea. Sobre la recepción del derecho romano en Navarra”. *AHDE*, XI. (1934), 463 eta 464. orr.: *En Tudela, donde había una mayor cultura jurídica a base del Derecho indígena, se prohibía en 1247, a imitación de otras poblaciones, recibir como razonador en Cort de justicia a los que supieran decretos, es decir, Derecho romano. En unos convenios entre el chantre de Pamplona y los collazos de Huartera-Araquil (1257) se pacta que “si por aventura alguna quereylla que yo ouiese deyllos o eyllos de mi, planament sines voçeros deuemor yr al alcalde del merrcado de Pamplona, et ferli entender la quereylla et passar por ond eyll dixiere segund fuero”. Vemos, pues, en el siglo XIII establecido al abogado con carácter profesional.*

¹⁴ Gero liburua aipamenak egiteko, Villasantek eginiko bigarren argitalpena hartu da aintzakotzat: AXULAR. *Gero*. Jakin, Arantzazu, Oñati, 1976 (Argitalpena Aita Luis Villasante, O.F.M. Euskaltzaindiko Lehendakaria)

¹⁵ Ikus bereziki, hiztegiari buruz, eta horren barruan diren hitz juridikoei buruz, VILLASANTE, Aita L.: *Axular-en Hiztegia*. Arantzazu: Jakin, Arantzazu, Oñati, 1973. Berrikitan argitaratua, faksimile erara, Laixan Euskara Elkarte, Oñati, 2007.

Esan legez, nabariro baldintzatzen ditu aurreko horrek liburuaren norabidea eta horren jokamoldea, ideiak plazaratzeko tenorean eta orduan. Hiztegia bera, lehen-lenetik eta zeresanik ez, zuzenbide hitzena ere, arloz arlo Axular-ek halako gogoia jartzen duelako, lege-esparruak eskain diezazkiokeen irakasbideen bitartez bere asmoak jendaurrean jartzeko.

Bost sail dira, izan ere, sailkatze aldera, azpimarragarrienak. Bostok, bistan da, irmoki loturik daude Axular bera inguratzen duen munduari eta gizarteari. Hartara, *legea* da lehena; *justizia*, bigarrena; *jabetza*, hurrena; *kontratuak eta betebeharrak* hurrenaren hurrengoa eta, *testamentuaren* ingurukoa, azkena.

Bost horietan du Sarako erretoreak zeresana, eta guztiotan ere erakusten du gizartearen hasieratik berezko izan dena, hau da, zuzenbidea, legea eta hizkuntza errealtate bereko adierazpenak izatea.

Egin-eginean ere, bata (hizkuntza) bestearen (zuzenbidearen) eramailea da, aldian aldiko sistema juridikoek hizkuntzaren bidez kanporatzen baitituzte euren aginduak eta manuak. Ingurune horretan kokatuta, berebiziko erakustaldia da Axular-ena, XVII. mendeko mundu juridikoaren printzak euskaraz ematean. Ez dugu, ez, harena larregi handiesteko asmorik. Bai, ostera, haren hizkera-sona alderatzeko orduko lege-antolakuntzarekin.

Lehen ere esan da Axular-ek ezagutzen duen zuzenbidea, neurri handi batean, zuzenbide idatzia dela, hain juxtu ere, lehen hona alderatu dugun zuzenbide erkidea, ordu hartan latinez Europan zehar dabilena. Hori azaltzen da unibertitateetan, esaterako, Salamancan bertan, Axular ikasle delarik. Hori ere agertzen da *Gero* liburuan, argi asko erakutsi zuenez A. Irigarai¹⁶, *Geroren* aipamen klasikoak zedarriztatzean.

3.1. Legea

Legea zer den zehazteko aldarrean, Axular-en zorrak argi daude. Izan ere, Domingo de Soto Salamancako irakasle eta teologoarekin batera lerratzen da Axular, Salamancako teologoaren artean izandako eztabaidetan. Bi aldiz deitzen dio hari *doktor handi* (aurrenik, Ax 139: *Zeren othoitz hek, eta Iainkoaz orhoitze hek bortxak, heriotzearen beldurrak eragiten baitzerautzan. Pontu hunen gaiñean erraiten du Soto doktor handi hark...*; eta, hurrenik, Ax 375:

¹⁶ IRIGARAY, A.: "I eraskina. Liburu hunetan aipatzen diren autoreen izenak". *Guero bi partetan partitua eta berecia*. Itxaropena irarkola, 1954, Zarautz, 461. or.: *Decretum—139, 144.*

Baiña egiteko huni ihardesteko, aita Domingo Soto, Doktor handi hari iarraiki nahi natzaika. Vide Dom. Soto in 4. Sent. dist. 5 q. unica art. 4), eta bietan du erakusten Axular-ek bere miresmena harekiko.

Hona legeari buruzko aipamen nagusiak:

3.1.1. Arrazoi naturala, legearen esataria

Ax 272: *Barreneko aitzindari haur edo argi egille haur —zein deitzen baitute doktorek Synderesis—, da gure konzientzia edo arrazoi naturala. Zeren ezta munduan halako aitzindaririk, gidaririk, argi-egillerik eta ez erakuslerik, nola baita arrazoin naturala, eta arrazoin naturalak dioena: naturaren arauaz, legez eta ethorkiz dakiguna: bat bederaren barrena, konzientzia: eta konzientziaren lehenbiziko mugida, abiadura, erakuspena eta konseillua.¹⁷*

3.1.2. Lege naturala

Ax 272: *Eta zer da lege naturala? Bat bederaren konzientzia, zeinetan barrena baitago, bere buruzko ezagutza bat, iakiteko zein den zuzen eta zein makhur: zein den ongi eta zein gaizki: halako moldez ezen ezpaita zer ibilirik frogatzen, gauza gaixtoa dela bekhatua, eta gauza ona berthutea, zeren badakigu haur gerok ere geure burutik, lege naturalak berak, konzientziak erakutsirik.¹⁸*

¹⁷ DE SOTO, DOMINGO. “De la justicia y el derecho (De iustitia et iure)”. In CLEMENTE FERNÁNDEZ, S. L. *Los filósofos escolásticos de los siglos XVI y XVII. Selección de textos*. Madril: Biblioteca de Autores Cristianos, 472. zk., 1986, 245. or.: 493 *De ahí se sigue que la ley natural es cosa distinta de la sindéresis. El mismo santo Doctor ha enseñado que la sindéresis es un hábito, o sea una virtud de la mente que nos inclina a prestar nuestro asentimiento a los principios prácticos, al igual que el hábito intelectual es una inclinación y movimiento a asentir a los principios especulativos. Y por esto se dice que la sindéresis estimula al bien y reprueba el mal. En resumen: de la misma manera que el hábito del entendimiento no es un conjunto de principios, sino la facultad de asentir a estos mismos principios, así tampoco la sindéresis es la ley natural, sino la facultad de asentir a los principios y dictámenes prácticos que constituyen la ley natural.*

¹⁸ CRUZ CRUZ, J. *La ley natural como fundamento moral y jurídico en Domingo de Soto*. Barañain: EUNSA. Colección de Pensamiento Medieval y Renacentista, 91. zk., 2007.

3.2. Justizia

Ohikoa izan da kultura guztietan justiziarekiko mesfidantza. Mendeetan zehar, gogoeta bera islatu da hainbat lekutan, batez ere, literatura idatzian¹⁹. Horretan ere, Axular-en *Gero* ez da salbuespena. Lautara laburbil daiteke haren pentsamendua:

3.2.1. *Zer-nolako den*

Ax 45: *Eztut bekhatirik egin nahi, zeren benturaz hetan nengoela, neure azken egunak atrapa nintzake. Eztut ebatsi nahi, zeren benturaz iustiziak atzeman nintzake, urkha edo azota.*

Ax 90: *Iustizia min da, eta garratz, eta miserikordia gozo eta ezti...*

Ax 91: *... aditu behar dituzu aphur bat iustiziaren tornuak eta kolpeak ere, hek aditurik, fidantzia erhoak utz ditzatzun amoreakgatik.*

Ax 92: *Iustiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra izan zen goitian, zeruko Aingiruetan, Luziferren eta haren lagunen gaiñean.*

Ax 92: *Iustiziaren bortitza!*

Ax 270: *Nahi duzu iakin, bere soiñeko arropaz prezatzen eta loriatzen dena nola den? Azotatu ondoan justiziak sorbaldan, burdin goriaz emaiten dioen markaz eta zigilluaz prezatzen den ohoiña bezala. Marka hura, bere gaixakeriakgatik emaiten zaika ohoiñari, eta bai guri ere beztimenda, gure eta Adan gure lehenbiziko Aitaren bekhatuagatik. Bekhatirik izan ezpaliz, etzen beharko beztimendarik: eztugu beraz hetzaz zer banaloriaturik.*

Ax 305: *Eta hala iustiziak ere, behin azotatua, bigarren atrapaduran, bortizkiago gaztigatzen du.*

3.2.2. *Justizia ez da miserikordia*

Ax 162: *Baldin obra miserikordiazkoak, nola baitira probeen faboratzea, biluzen beztitzea, gose, eta egarri denari, iatera, eta edatera emaita, bat bederak berak bere eskuz, bizi dela, irabazi handirik egitekotz,*

¹⁹ FINA SANGLAS, A. *Justicia y Literatura*. Bartzelona: BOSCH. Letras y Letrados, 1993.

egin behar baditu: zenbatenaz berak bere eskuz ondokoetara utzi gabe, egin beharkoitu obra obligazinozkoak, iustiziazkoak, eta konzientziaz zor dituenak? Nola baitira ebatsien bihurtzea, zorren pagatzea, erauzi dituen falso testimonioen satisfatzea, eta eragin dituen kalteen, eta gaixakerien erremediatzea?

Baldin obra miserikordiazkoak zerorrek zeure eskuz egiten ezpadituzu, eta ez bertzeri ere eragiten, egia da, eztuzu orduan merezimendurik izanen, baiña ez bekhatu mortalik ere. Zeren obra miserikordiazkoak, hargatik deitzen dira miserikordiazkoak, eta ez iustiziazkoak, zeren zenbait behar ordu herstutan, eta premiaskotan baizen, ezpaikara obligatu heken egitera. Baiña obra iustiziazkoetan diferentki mintzatu behar dugu. Zeren heken konplitzera obligatu gara bekhatu mortalen penan.

3.2.3. Justiziaren prozesua luzea, latza eta... aldakorra ere bada

Ax 96: Nola Zesarek kondenatua, apelatu baitzen Zesar beragana, Zesar haserretuaganik ez haserretuagana: hala bekhatoreak ere behar du apelatu, Iainkoaganik Iainkoagana: Iainko iustiziazkoaganik Iainko miserikordiazkoagana.

Ax 285: Munduko gortheak, audientziak, eta iustiziak nahasten dira, lekhukoek ukhatzen dute, notaria irabazten da, alkatea diruz itsutzen da, lausenguz eta faborez gobernatzen da: eta handik anhitzetan ere, barrenean zarela uste duzunean, kanpoan edireiten zara, irabazi ustea galtzen duzu. Baiña konzientziaren gorthean eta audientzian ezta halako bidegaberik egiten. Aitzitik bertze guztiek faltatuagatik, kulpantak berak, konzientziak berak akhusatzen du bere burua, eta bai kondenatzen ere.

3.2.4. Justiziaren ondorioa: zigorra, legeak ezarria

Ax 230: ... ordenatu zuen eta ezarri legea, nor ere eroriko baitzen adulterioan, eta nork ere behar etzen emaztearekin huts eginen baitzuen, halakoari eta halakoei, hainari eta hainei, hala gizonari nola emazteari, iustiziak begiak atherako eta iraziko zerauztela: barrenean, kulparen beldur gabe, itsutu zirenaz gero, kanpoan ere penarekin itsu zitezingatik (Alexander ab Alexandro lib. 4 cap. 1). Lege haur ibeni zuen Zaleuko errege hark.

Ax 231: Eta berriz bertze aldetik nola iustiziak alegatzen zioen legeak begiratu behar zirela, eta batari barkhatzeaz bertzeak ausartzia

hartuko zuela. *Eta iustiziaren arrazoin haur bortitzago iduriturik, semea galduko bazuen ere, deliberatu zuen eta manatu iustizia egin zedilla, bere semea atzeman ziazotela, eta begiak legearen arauaz athera ziazotela. Erresumak iakin zuenean bere erregeren deliberamendua, bildu zen komun guztia eta ioan zeikan guztia batetan othoitz egitera arren nahi zioen bere semeari barkhatu. Zeren lege hura komunagatik egina zela eta komunak hain errege onaren eta iustuaren amorekagatik, aldi hartakotz bere zuzena kitatzen zuela. Komunaren othoitzak, eta semeaganako amorioak anhitz gogoeta eragin zeraukaten, baiña gehiago legearen hautsteak. Zeren iduritzen zeikan, ezen etzuela bere koroa segur izanen, baldin tipientzat bezala, handientzat ere iustizia egiten ezpazuen. Eta hala anhitz itzul inguru, pensu, eta gogoeta bere baithan eginik, azkenean ediren zuen bide bat bere kaltekoa, baiña semearen gaztiguaren arintzeko ona. Okher hobe, itsu baiño. Ordenatu zuen ezen halaz, eta legearen arauaz, halako hutsik egiten zuenari bi begiak irazi eta athera behar zeitzanaz geroztik, athera ziazotela aitari berari bere begietarik bata, eta semeari beretarik bertzea. Eta halatan bien artean kaltea iasanik, legea begira zedilla. Eta hala ordenatu bezala konplitu zen. Aitak eta semeak bere begietarik bana galdu zuten. Eta gero handik harat gelditu zen legea konfirmatua, semea gaztigatua, erresuma guztia ikharatua: eta halako faltatan erortzen zenarentzat barkhamendu erdiesteko esperantzaren athea hertsia.*

Ax 262: *Lege zuzenean ordenatua dago, asko dela frogantzarik emazte baten gaixtotzat emaiteko, gizonarekin bakharririk, ez orenean, eta hartako lekhuana edireitea.*

Ax 264: *Ordenatu zuen Solonek bere legetan, baldin herriko kargudun bati gertha bazekion, sobera edatera, eta handik mihiaren motheltzera edo zangoen kordokatzerara, edeki zekiola berehala bere kargua. Eta arrazoiñekin ordenatu zuen hala. Zeren bere burua ezin goberna dezakeienak, nola egingen du bertzerena? Qui sibi nequam est, ciu alii bonus erit? (Eccli. 14). Beretzat gaixto dena, nola izanen da bertzerentzat on?*

3.3. Jabetza

Jabetza da eskubide errealetan paradigmaticoena eta osoena. Bestaldetik ere, ezin nabariago erakusten du horrek, aldiak aldi, gizabanako orok gauzen eta eskubideen gainean duen eremu berezkoa eta ezin hautsizkoa, bertan dagoela jabearen erabakimenik beteena. Horrexegatik, hain zuzen ere, Axular-ek bi

adibide esanguratsu darabiltza, batari zein besteri dagozkion ondorioak oso agerikoak baitira, bere inguruan dituen merkatari zein etxagunen bizimoduan.

Bi-biotan ere jabetza-eskubideak urratzen ditu nork eta aldameneko jabeak, dela auzokoaren lurraldean etxe berria egiten duelako, horren baimenik gabe, dela norberaren zuhaitza, leku batean hazi ondoren, aldameneko lurrera zabaltzen dituelako bere adarrak eta hostoak.

Bi kasuok ondo aztertuak izan dira zuzenbide erromatarraren aldetik, eta Axular-en garaian zabalkunde handikoa zen *Corpus Iuris Civilis* testu erraldoiaren *Digestus* zatian barruratuak.

Nolanahi ere, hona ekar daitezke bi testuon jatorrizko edo antzeko esana, irakurleak ikus dezan Axular-ek iturri juridikoei buruz darabilen jokamoldea:

3.3.1. *Obra berria*

Ax 53: *Zeure lurrean, zure baimendua eta lizentzia gabe, etxe bat hasten deratzutenean, zeren baldin obraren akhabatzera utz bazinitza peril bailluke, akhometa liazazuten zuzen dutela lur haren gainean, hartarakotzat, aitzindurik bezala, ordenatzen du legeak, egotz ahal dezakezula obra berria (ff. de novi operis nuntia. L. Praetor). Hala egin behar da bada bekhatuetan, eta bekhatuzko obretan ere; berri direino egotzi behar dira, zeren bertzela nahiko du deabruak akhometatu eta alegatu, obra zahartu dela, eta hartan zuzen duela.*²⁰

3.3.2. *Auzokoaren zuhaitza*

Ax 143: *Ordea hura da legearen kontra. Zeren erraiten du legeak, zuhaitz bat bere denbora guztian ondoz eta erroz, zure baratzean edo*

²⁰ Horren ordaina *Digestus*aren barruan honetara eman daiteke: D 39,1, 20 *Praetor ait: "Quem in locum nuntiatum est, ne quid operis novi fieret, qua de re agitur, quod in eo loco, antequam nuntiatio missa fieret aut in ea causa esset, ut remitti deberet, factum est, id restituas* (KRÜGER, P. *Corpus iuris civilis. Volumen primum: Institutiones (Digesta, recognovit Theodorus Mommsen)*. Berolini. Apud Weidmannos, 1882, 1. liburukia, 593. or.)/ *Dice el pretor: "Restituirás, en aquel terreno en el que se ha hecho la denuncia de que no se puede construir la obra nueva de que se trata, lo construido antes de que la denuncia fuera dispensada o hubiera de ser dispensada"* (D'ORS, HERNÁNDEZ-TEJERO, F., FUENTESECA, P., GARCÍA-GARRIDO, M. eta BURILLO, J (koord.). *El Digesto de Justiniano. Tomo III: libros 37 – 50*. Iruñea: Editorial Aranzadi, 1975, 147. or).

lurrean egon dena, azkenean bertzeren baratzera edo lurrera makhurtuagatik; eta ebakitzen dutenean bertzeren lur hartara eroriagatik, zure izanen dela, eta ez eroririk datzaneko lurraren iabearen (Lege Si plures in ff. novo lib. 5). Hala komunzki izanen da bada halaber, bizi deiño deabruaren zerbitzuan erroak eginik egon dena ere, hiltzen denean, deabruaren, eta ez orduan Iainkoagana makhurtuagatik Iainkoaren.²¹

3.4. Kontratuak eta betebeharrak

Mailegua da, zalantza-ñimiñorik gabe, Axular-en arranguran dagoen kontratu nagusia, eta, horrekin batera ere, lukurreria. Begien aurrean ditu ordu hartan dirua eskuratzeko ohiko izaten ziren zentsuak, hain zuzen ere, maileguen bermeak eta gauzen erabilera eskuratzeko moduak.

Beste behin ere, Axular-ek argumentuak ekartzen ditu mundutik espiritura, eta zentsuak eta maileguak irudi-lanabes egokiak ditu, besteak beste, bekatu larriak uxatzeko; alferkeria, luzamendutan ibiltzea eta mundu honetako legearen eta Jainkoaren legearen arteko desberdintasunak, azken horrek ez baitu epemugarik eta barkamenik, izatez, betikoa baita.

Axular-ek, azkenez, badu bere psikologia juridikoa ere, haren aburuz, itunak egin behar baitira, lehendik haserre direnen artean, ez unean uneko horretan, ezpada aldi bat iragan ostean, kolera eta haserrea iraungi direnean.

3.4.1. Mailegua

Ax 19: *Lukanoek edireiten zutenean nehork iende alferrei deus prestatzen zeruela, emaiten zuten berehala sententzia prestatzaillearen kontra:*

²¹ Horren ordaina *Digestusaren* barruan honetara eman daiteke: D 43, 27, 1 *Ait praetor: Quae arbor ex aedibus tuis in aedes illius impendet, si per te stat, quo minus eam adimas, tunc, quo minus illi eam arborem adimere sibi que habere liceat, vim fieri veto.* (KRÜGER, P. *Corpus iuris civilis. Volumen primum: Institutiones (Digesta, recognovit Theodorus Mommsen).* Berolini. Apud Weidmannos, 1882, 1. liburukia, 703. or.)/ *Dice el pretor: "Prohibo que, si dejas de arrancarlo tú, impidas con violencia que el demandante arranque y se quede con el árbol que se inclina desde tu casa sobre la suya"* (D'ORS, HERNÁNDEZ-TEJERO, F., FUENTESECA, P., GARCÍA-GARRIDO, M. eta BURILLO, J (koord.). *El Digesto de Justiniano. Tomo III: libros 37 – 50.* Iruña: Editorial Aranzadi, 1975, 440. or.).

zer ere prestatu baitzuen, hura guztia gal zezala (*Nicolaus de moribus gent.*). Baiña nik uste dut ezen etzela halako sententziaren emaiteko premiarik, bera baitago emana. Zeren ezpaitu halakoei prestatzailleak, koberatzeko perilik.

3.4.2. *Interesak*

Ax 55: *Bekhaturik ilkitzeko, luzamendutan dabillanari, gerthatzen zaika, zensuko eta intereseko diruaren irabazia pagatzen ez-tuenari gerthatzen zaikana. Halakoari urtherik urthera, zorra handitzen, berretzen eta are baldin denbora luzeaz badago, doblatzen zaika, eta orduan ezta erraxkiago pagatzen. Eta ez bekhatua ere ezta, egonaren buruan aisekiago erremediatzen.*

Ax 150: *Zensuan, interesean, irabazian, obliga arazirik bezala, prinzipala irabaziarekin bihurtuko dioela. Eta hemengo irabazia ttipi da, ezta seguraturik ehuneko bat ere, baiña Iainkoarena handi da, gehiago da ehuneko ehun baiño.*

Ax 387: *Ezta aitzinatzen, eta ez gibelatzen, bethi dago egoitza batean. Krozka batean. Ezta behin ere ifernuko obligantzaren zensua eta interesa iraungitzen, eta ez pagatzen; bethi da zor prinzipala interesarekin.*

3.4.3. *Kaudimengabezia*

Ax 163: *Erranen duzu: Eztut ordea zertzaz paga. Baldin ezpaduzu, ezinak ez-tu legerik. Orduan etzara obligatu pagatzera, pagatzeko ahala dukezun arteiño. Ez eta etzara obligatu pagatzera, baldin hartzeko dunak berak kitatzen bazaitu edo barkhatzen baderatzu. Are gehiago, hartzeko dunak, ez ezin bertzez edo bortxaz, baiña bere nahiz eta borondatez, igurikitzen deratzunean, eta emaiten ephe, orduan luza dezakezu pagamendua ephe hartaraiño, baiña ez gehiago. Paga ahal dezakezula, pagatu gabe, iabearen borondatearen kontra, onaren edukitzea, bekhatu da.*

3.4.4. *Kontratua azkentzea*

Ax 279: *Egun batez ioan zituen filosofo batek zapata batzuk bere etxera, prometaturik zapata egilleari, denbora gutiren barrenean pagatuko zerautzala. Eta abiatu zen bere hitzean, eta ephean pagamenduaren*

egitera. Baiña enzunik ezen hiltzela diruak behar zituen zapatagina, bihurtu zen alegerarik bere diruekin etxerat, iduriturik ezen hainbertzez kito zela: eta eduki zituen zenbait denboraz diruak berekin. Ordea bitartez hartan hain iaten eta erratzen zuen bere baithan barrena bere konzientziak, ezen ezin pairatuz, ioan baitzen bere diruak harturik, zapataginaren estera eta han egotzi zituen, erraiten zuela, zapataginarekin berarekin mintzo izan bailliz bezala: Ille tibi vivit, redde quod debes (Senec. Lib 7 de benefic. Cap. 21). Bertze guztientzat hil bahaiz ere, oraiño bizi aiz enetzat. Thotzik bada, har itzak heure zapaten diruak, eta utztak niri baketa. Deskargua egin arteiño, etzuen utzi bere konzientziak sosegatzera, anarteraiño bethi eman zioen garri eta narrio. Ezta egungo egunean mundua hunein sentikor eta konzientziatsu.

Ax 392: Zeren bekhatuaren bere bidean eta osoki Ad aequalitatem iustitiae, berdinzki iustiziaren arauaz pagatzeko, behar izatu zen presuna infinituak, lainko eta gizon zenak paga zezan, eta hartarakotzat, heriotze errezibitu zuen. Halatan zorra bezala, pagamendua ere izaiteko infinitu.

3.4.5. Itunak

Ax 201: Eta nola baita erhokeria handia, erhoari, adimendutik iauzia dagoenari predikatzea, konseillu emaita, eta zuhurtziaz minzatzea: hala da halaber, erhokeria ez ttipia, kolera hanbi batean itsutua eta irakitua dagoenari, hala dagoenean, abenikoaz minzatzea, bere etsaiari barkha diazola erraita. Zeren bere bero hartan, koleraren lehenbiziko apoderan, abiaduran eta indarrean, ezta bere buruaren iaun eta ez iabe. Nec ira consilii est repletus capax (August. Ad fraters in eremo.). Koleraz betherik dagoena, ezta konseillu hartzeko gai. Aitzitik baldin orduan nehork halako gauzarik, abenikoazkorik, aipha badiazo: aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da, erratzen da, arneguz eta iuramentuz hasten da. Eta hala baldin haserre direnen, eta hauzitan dabilzanan artean, ongunderik, eta abenikoarik egin nahi baduzu, ez berehala lehenbiziko egunean ekhin, utzkitzu, baldin nahi baduzu kolpea segur egin, aphur bat hotztera, unhatzera, eta elkharren biphiltzera.

3.4.6. Merkataritza

Hona hemen Axular-en inguruan ziren pertsonen artean beste multzo esanguratsua: merkatariena. Ezaguna da horien eragina Sarako eskolaren

ganean, eta ezagunagoa oraindik, erreformaren kontrako giroak bultzatu zuena euskalgintzan²².

Beste behin ere, Axular-ek apustu garbia egiten du bere betiko bideari eusteko, alegia, esku-eskura dituen bizitza-gertaeretatik abiatu eta entzuleak konbentzitu, euren barruan dituzten balioak eta bizimodua lur honetatik harago eramanez, irudi batzuen bitartez, betiko salbazio-bidean jartzeko bere dotrina-hartzaileak.

Hiru ezaugarri azpimarratzen ditu Axular-ek bere azalpenean, merkatariari dagokienez: lehena, tratuetan arintasuna, egun ere bistan dagoena; bigarrena, iruzurra, tratuetan maiz gertatzen dena; eta, hirugarrena, irabaziak, arriskuaren parekoak, hain zuzen ere.

3.4.6.1. Merkatalgoaren arinak

Ax 394: Merkatalgoa, sal-erosia fite da egin. Ordea handik harat, salduz gero, gelditzen da sekulakotz, saldua, saldu: eta bai erosia ere sekulakotz erosi, erosi.

3.4.6.2. Merkataritzaren iruzurrak

Ax 273: Merkatarari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaixtoak, lukureriazkoak, enganamenduz betheak. Eta gero ioaiten dira bere kofesoretara edo bertzetara, galdegitera, ea tratu hek iustu diren, egin ahal ditezkeien. Eta ioaiten dira mengoa gabe, premia gutirekin. Zeren hain da klar ez tirela iustu, non baldin bertzetan ibili

²² Erabat esanguratsua da, esaterako, bizitza publikoaren egoera linguistikoa. Merkatariak ez ezik, bestelakoak ere (abokatuak, legelariak, hau da, zeregin pisuzkoak zituztenak gizartean...) egoera berezian daude hizkuntzaren aldetik, aldi horretan, Euskal Herriko Iparraldean. Ikus OYHARÇABAL, B. "Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles". *Lapurdum (Euskal Ikerketen Aldizkaria)*, VI. Baiona: IKER, 2001eko urria, 242. or.: *Déjà au 16^{ème} siècle, Scaliger avait note que les Basques devaient parler quatre langues, en soulignant que c'était en particulier pour les besoins de la vie judiciaire qu'il leur fallait savoir le français; cf. Urkizu 1986. Au debut du siècle suivant, le français est avant tout la langue du pouvoir et de la loi dans ces provinces. Autour du tribunal du bailliage de Labourd à Ustaritz, les gens de robe avaient constitué un groupe influent qui n'hésitait pas, semble-t-il, à abuser de la situation de diglossie, puisqu'à la fin du siècle les procédures pénales pouvaient être conduites sans qu'aucun interprète soit mis à la disposition des justiciables ignorant le français. Le témoignage de cet abus nous est rapporté dans un arrêt de 1695 du Parlement de Bordeaux dans lequel la Cour a enjoint audit Baillif de Labourd de se servir d'interprète dans les procédures criminelles qu'il fera faire à avenir lorsque les accusés n'entendent pas la langue Française; cf. Duvigneau-Légasse (1993: 1, 91).*

gabe, galdegin baliazote berek bere konzientziari hark berak erakuts baillizaie egia. Eta handik berek condena baillitzakete bere buruak. Zeren bere konzientzian barrena, ediren baillezakete, eskiribatirik bezala, galdez dauden guztiaren errepueta.

Ax 311: *Gaitz da tratuetan eta salerosietan, bethi egiaz ibiltzea; bertzerena eskuan darabillazularik, ez kutsatzea, errotan irinik ez lotzea.*

3.4.6.3. Irabaziak

Ax 319: *Merkatariak irabazi ustez, egiten du otsasoz eta leihorrez, hain arintki, hanbat bide, itzul inguru, eta ioan ethorri. Finean irabaziaren esperantza hunek, deusen usteak ernatzen, eta iratzartzen du mundu guztia: Hain iratzartzen, non esperantza hunekin, neguak uda, gauak egun, uriak atheri, minak gozo, travailluak aisia, eta atsekabeak ere, atsegintasun eta plazentzia iduritzen baitzaizkigu.*

3.5. Testamentua

Ez ditu Axular-ek testamentuari buruzko kontuak isilik uzten. Zinez, testamentua bera zer den zehazten ez badu ere, xehe-xehe garatzen ditu horren baldintzak.

Zergatik halakoak Axular-en baitan? Argi dago Axular-entzat testamentua zer den. Labur-zurrean, testamentua da giza seme-alaba orok hil aurretik duen azken borondatearen eramailea. Paralelotasunen bila joanda, heriotza aurreko aldiarekin pareka daiteke, non gizakiak bere bizitzaren birpasa egiten duen, eta, aldi berean, bizialdi bitarteko bekatuetatik damutzeko azken aldia izaten duen²³.

Heriotzaren inguruko latzak menderatzen du testamentua, eta, horregatik, testamentugileak, bere burua argitze horretan, askatasun osoa izan

²³ LÉVY, J-P. eta CASTALDO, A. *Histoire du droit civil*. Paris: Droit privé. Précis. Dalloz, 1. argitaraldia, 2002, 1180. or.: *Dans l'ancien droit français, la fonction du testament (ou, plus généralement, de l'acte à cause de mort) était longtemps moins d'ordre patrimonial que religieux. Les préoccupations auxquelles il répondait au Moyen âge sont développées très souvent dans les prologues de l'acte: le disposant y exprime la fragilité de la vie humaine et sa crainte des châtements qui risquent de l'atteindre dans l'au-delà, du Jugement dernier, de l'Enfer. Il croit qu'il y échappera en réparant tout le mal qu'il a pu faire sur la terre u, tout au moins, en le compensant par de bonnes actions. Comme on le dit, et cela est devenu une expression courante, on teste "pour le remède de son âme" (pro remedio animae), et non seulement pour le remède de la sienne mais, aussi, pour celui des âmes de ses parents.*

behar du, aldi eta neurri egokian, aurretiaz ere zorrak kitatu dituelarik. Beste behin ere heriotza da aho biko ezpata. Onik onenean, testamentua da lur honetako aferak bideratzeko tresna. Orobat, testamentuarekin batera, gizabanakoak bere bizitzaren damua egin behar du, bere zorrak, okerrak eta makurrak zuzendu behar ditu, hil aurretik Jainkoarekiko dituen bestelako zor horiek ere ordainduta²⁴.

Adibide egoki batez ematen digu Axular-ek horren berri. Hainbatez, egun gure artean ohiko diren oinordetza-zatien antzera, hirutara banatzen du Axular-ek testamentugile egokiaren ustezko banaketa: lehen zatiarekin, osokoaren heren batez, utzi dituen zorrak ordainduko dira; bigarren zatikiarekin, beste heren batez, seme-alaba oinordekoak izango dira; eta, azken heren batez, hildakoaren arima izango da kezka nagusia, haren salbamenerako aplikatu behar baita. Musika ezaguna da hori, batez ere, orduko oinordetza-zuzenbidean, eta, geroago ere, Euskal Herriko foru-zuzenbidean²⁵.

3.5.1. Nork ezin duen egin

Ax 138: *Garzelean dagoenak egiten duen ordenuak eta testamentak eztuela deus balio dio legeak (Ff. de eo qui metus causa legat in carcere). Ez eta beraz eztu deus balioko eritasunaren eta heriotzearen garzelean eta hersturan dagoenak egiten duen promesak eta penitentziak ere. Zeren hek guztiak dirudite direla, bortxaz eginak, eta ez amorioz, eta ez borondatez.*²⁶

²⁴ Heriotzari buruz, Euskal Herrian, adibidez: MADARIAGA ORBEA, J. *Historia social de la Muerte en Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta, 2007. Berebat, testamentuaren inguruan: MURO ARRIET, K. *Tolosaldea bere testamentuetan (1760-1860)*. Tolosa: Tolosaldea Historia Bilduma 05. Aranzadi Zientzi Elkarte. 2003. Ildo beretik: GÓMEZ SEIBANE, S., ISASI MARTÍNEZ, C. eta SESMERO CUTANDA, E. *Bilbao en sus documentos (1544-1694)*. *Documentos lingüísticos del País Vasco*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 2007.

²⁵ Euskaraz eginiko testamentu espiritualaren adibide bat in DUVERT, M., DECHA, B. LABAT, C. *Jean Baratçabal raconte... (La vie dans un village basque de Soule au debut du 20^e siècle*. Baiona: Association LAUBURU, 1998, 133. or. Bertan zehazten dira, zubereraz eta puntuz puntu, arimaren aldeko eskaintzak.

²⁶ Horren ordaina *Digestus*aren barruan honetara eman daiteke: D 4, 2, 22 *Qui in carcerem quem detrusit, ut aliquid ei extorqueret, quid-quid ob hanc causam factum est, nullius momenti est* (KRÜGER, P. *Corpus iuris civilis. Volumen primum: Institutiones (Digesta, recognovit Theodoros Mommsen)*. Berolini. Apud Weidmannos, 1882, 1. liburukia, 703. or.) / *Si alguien metió a otro en la cárcel para quitarle a la fuerza alguna cosa, cuanto se hizo por esta causa es nulo* (D'ORS, HERNÁNDEZ-TEJERO, F., FUENTESECA, P., GARCÍA-GARRIDO, M. eta BURILLO, J (koord.). *El Digesto de Justiniano. Tomo I: constituciones preliminares y libros 1 – 19*. Iruñea: Editorial Aranzadi, 1968, 183. or.).

3.5.2. *Noiz egin behar den*

- Ax 157: *Ordea noiz? Gero, hiltzerakoan. Bitartean erraiten duzu: Neure onak neurk nahi ditut gozatu eta manaiatu, ez tut oraiño gabetu nahi: ez tut ohera gabe biluzi nahi. Baiña gero, neure azken ordenuan eta testamentean, manatuko dut neure ondokoa, neure onekin utziko dudana, egin ditzala ene deskargu guztiak. Eta are gehiago, abisatuko dut suma bat, seiñalatuko baitiot suma hura probetara parti dezala. Eta benturan purgatorioetaraten banaiz ere (zeren gaixtoeneko kontuan guztiok purgatorioetara uste dugu) berehala handik atheratzeko, hunenbat meza eta trentena eman arazi diatzadala, eta bertzerik ere anhitz obra on ene izenean, ene onetarik dagiela.*
- Ax 158: *Zenbat ikhusten ditugu ustekabeen, laburzki kolpez edo estropuz, mintzatu ere gabe, finatzen direla? Eta bai halaber sukharra nahasirik, bere testamentak hasi, eta akhabatu gabe gelditzen direla?*
- Ax 159: *Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtzi eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu: lehen zein hertsu eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Orduan nork zer erraiten baiteratzu, hura laudatzen duzu: eta anhitzetan ere, zer erraiten duzun ezta kizula, baietz erraiten duzu.*
- Ax 160: *Orai hemen benturaz erranen du zenbaitek. Beraz hunelatan, eriek bere eritasunetan, eta azken ordenuetan egiten dituzten legatek, emaitzek, eskentzek, erremusinek eta bertze obra miserikordiazkoek ez tute deus balio.*

3.5.3. *Zorrak hil aurretik ordaindu beharra*

- Ax 163: *Eta, ezta ez asko, aithorraren emaitza, eta ez gero zeure ordenuan, eta hiltzerakoan, bihurtzeko eta pagatzeko, gogo eta borondate izaitea ere. Baldin ahal badezazu, zerorrek bizi zarela, eta ahalik eta fitetzena pagatu behar duzu zeure zorra, eta bai bihurtu ere gauza ebatsia, eta gaizki eramana. Ezta asko ondokoei kargu utzte. Hala emaitzen du aditzera doktor Navarrok: Decedentes e vita, cum possint et non restituunt, sed legant in testamento, non secure decedunt (Navar. in Manuali de restitut. cap. 17, num. 69). Hiltzerakoan, berek paga ahal dezaketelarik, pagatzen ez tutenek, baiña bere testamenteretara, ordeneretara, eta ondokoetara utzten*

*dutenek, eztute ongi egiten, eztira halakoak bere konzientzietan mundu hunetarik segur partitzen. Gehiago dio Doktor Navarrok lekhu berean: Qui alienum iniuste retinet, et scit, illud se debere, si expectat donec condemnetur per iustitiam, peccat mortaliter. Zordun dela dakienak eta iustiziaz kondena dezaketen arteiño, pagatu nahi eztuenak, bekhatu mortal egiten du.*²⁷

Ax 164: *Bada uste duzu, zure dirua edo hazienda zuk zeure ondokoari, zeure zorraren eta obligazionearen pagatzeko utzten diozuna, etzaikala zure ondoko hari ere zuri bezain on, gozo eta eder idurituko?. [...] Ha zenbat trentena, zenbat arima-kari, zenbat deskargu dagoen egin gabe, batak bertzeagana utziz, eta guztiek utziz.*

3.5.4. Testamentuaren edukia

Ax 167: *Irakurtu izatu dut, ezen behin gizon batek zituela hirur aztore onak, eta famatuak. Eta bere azken finean, hetarik bata utzi zuela, zor bat baitzuen, haren pagatzeko; bigarrena, seme bat baitzuen, harendako; eta hirugarrena, arima-kari mezatan enplegatzeko. Eta gero handik fite, aztore hetarik bata ioan baitzen airaturik eta ez gehiago bihurtu: erran zuen semeak, ioan zen aztore hura zela, haren aitak arima-kari utzi zuena. Etzuen erran berarentzat utzi zuena zela. Etzaitezilla zeure ondokoaren esperanza eta hark eginen duen deskarguan fida.*

3.5.5. Testamentu espirituala

Ax 217: *Bada gure Iaungoikoak bere azken finean, mundu hunetarik bertzera partitzerakoan, erran zerauen bere diszipuluei eta hekin batean guri guztioi: Ene diszipuluak, ene giristino maiteak: badakusazue, nola nagoen, nola heriotzea hurbildu zaitan, sarri hil*

²⁷ Doktor Navarro izeneko irakasle, jurista eta moralistari buruz, ikus : TEJERO, E. eta AYERRA, C. La vida del insigne doctor navarro, hijo de la Real Casa de Roncesvalles. Iruña: Colección canónica. Navarra Gráfica Ediciones, 1999. Berebat, DE OLÓRIZ, H. Nueva biografía del doctor navarro Martín de Azpilicueta. Iruña: Analecta editorial, 1. berrargitalpena, 2001. Ikus, edu bertsuan, Martín Azpilikueta ren testuak euskaraz, in CHARRITTON ZABALZAGARAY, P. (paratzailea). Martín Azpilicueta: Teología eta Política. Bilbo: KLASIKOAK. 2006.

behar dudan, eta neure testamentaren eta azken ordenuaren egiteko ordu dudan. Bada ene azken ordenua, ene azken borondatea eta manua haur da: Ut diligatis invicem (Jo. 15). Elkhar onhets dezazuela, etsaiari barkha diazozuela.

4. LABURBILDUZ

Behinola Manuel Lekuona euskaltzainburu zenak esandakoa berriro ere gogoratu behar da, *Gero* hizpide zuela: ... *Apez Jaun, zuretzat, Midiku Jaun, zuretzat, Jaun abokat...Zerana zerala; guztiontzat, Guztiok arkituko degu Liburu onetan nun edan, nun goza, nun ase. Olakoxea da*²⁸. Hark ireki zuen bideari jarraituz, argi dago Axular-en *Geroak* aukera eta abagune aproposak ematen dituela irakurraldi askorentzat, zuzenbidearen arlokoarentzat barne. Begien bistakoa da, edu berean, irakurraldi horiek beren mugak dituztela. Mugak muga, so-egite juridikoa aberasgarria izan daitekeela ere ezin uka, batik bat ikusteko nola darabilen orduko euskaldun ikasi batek zuzenbidearen mundua.

Hortaz:

- a) Lehendabizikoz esan daiteke mundu hori ez zaiola arrotz nafar idazleari. Formazioz eta zereginenez, teologia moralaren eta zuzenbidearen artekotasuna ezagutzen eta baliatzen du batetik besterako zubia egiteko.
- b) Axular-ek ezagutzen eta baliatzen duen zuzenbidea, zuzenbide erkidea da, hain zuzen ere, unibertsitateetan erakusten zena. Hortaz, ez du nafar zuzenbidearen aipamen zehatzik egiten, nahiz eta modu batera zein bestera inguruan zuen egitura juridikoa, Nafarroako Erresumarena, hurbil eta jakinekoa izan, ziur asko.
- c) Inolako arazorik gabe erabiltzen ditu hainbat erakunde juridiko, hala nola testamentuak, kontratuak, jabetza, justiziaren nondik norakoak... hau da, gizartean ohiko zitzaizkionak euskaraz emateko modua erdiesten du, zenbait kasutan ere, arrakasta azpimarragarri batez. Hor da, esanaren lekuko eta froga, eta aipuen osagarri, Axular-en hiztegian aurki daitezkeen hamaikatxo hitz eta adiera, zuzenbideari eta administrazioari dagozkionak.

²⁸ AXULAR. *Gero*. Zarautz: Itxaropena, 1954 (Sarrera eta argitalpena, Manuel Lekuonak eginak) XX. or.

- d) Bere apurrean ere, testigantza fidagarria ematen du hark, XVII. mendean Euskal Herrian indarrean zen egitura juridiko eta administratiboarena. Ezin ukatuzkoa da, bide beretik, orduko hartan, gaurko egunean bezalaxe, lege-munduak, euskararen ikuspegitik behinik behin, bazuela eta baduela zer landu eta zer hobetu, justiziak, sarri-askotan, Axularren garaian bezalaxe, egun ere, euskaldunentzat min eta garratz izaten jarraitzen baitu.